



BABESTUTAKO JATORRI IZENDAPENAK (BJI), BABESTUTAKO ARGIBIDE GEOGRAFIKOAK (BAG) eta BERMATUTAKO BEREZITASUN TRADIZIONALA (BBT)

Definizioa

Kontseiluaren 510/2006 Araudiak (EE), 2006ko martxoaren 20koak, Izendapen Geografikoei eta Nekazaritzako Produktuen eta Elikagaien Jatorri Izendapenei buruzkoak, ezarri egiten ditu Babestutako Jatorri Izendapenaren (BJI) eta Babestutako Argibide Geografikoaren (BAG) definizioak.

Era horretan, Araudi horretan horrela definitzen da **Babestutako Jatorri Izendapena**:

Eskualde, leku zehatz edo, kasu berezietan, herrialde baten izena, baliagarri dena nekazaritzako produktu edo elikagai jakin bat izendatzeko. Honako ezaugarri hauek ditu:

- * Jatorria du eskualde, leku zehatz edo herrialde jakin batean.
- * **Bere kalitatea edo ezaugarriak funtsean edo esklusiboki ingurumen geografikoaren ondorio dira, bertako natura- eta giza faktoreen ondorio.**
- * Produkzioa, eraldatzea eta ekoizpena eremu geografiko mugatuan egiten dira.

Babestutako Argibide Geografikoa (BAG), bestalde, honela definitzen da:

Eskualde, leku zehatz edo, kasu berezietan, herrialde baten izena, baliagarri dena nekazaritzako produktu edo elikagai jakin bat izendatzeko. Honako ezaugarri hauek ditu:

- * Jatorria du eskualde, leku zehatz edo herrialde jakin batean.



* **Jatorri geografiko horri leporatu ahal zaion ezaugarri zehatz, ospe edo beste nolakotasunen bat du.**

* Produkzioa, eraldatzea eta ekoizpena eremu geografiko mugatuan egiten dira.

Honako hau da, azkenik, **Bermatutako Berezitasun Tradizionala** (BBT):

Nekazaritzako produktu bat edo elikagai bat kategoría bereko nekazaritzako beste produktuetatik edo beste elikagaietatik argi bereizten dituen elementua edo elementu-multzoa.

Nekazaritzako produktuen edo elikagaien Erregistroan sartzeko funtsezko baldintza lehengai tradizionaletatik ateratakoak izatea da. Bestela, osaera tradizionala izan behar dute, edo elikagai horiek ekoizteko zein eraldatzeko modua tradiziozko produkzio- eta/edo eraldatze-motaren baitakoa izango da.

Legedi aplikagarria

BJI eta BAG

Kontseiluaren **510/2006 (EE) Araudia**, 2006ko martxoaren 20koa, **Nekazaritzako Produktu eta Elikagaien Argibide Geografikoei eta Jatorriko Izendapenei** buruzkoa. Babestutako Jatorri Izendapenen (BJI) eta Babestutako Argibide Geografikoaren (BAG) definizioak ezartzen ditu.

Gainera, Batzordearen **1898/2006 (EE) Araudia**, 2006ko abenduaren 14koa, ezartzen dituena Kontseiluaren 510/2006 (EE) Araudiko **aplikazio-xedapenak**, Nekazaritzako Produktuen eta Elikagaien Argibide Geografikoen eta Jatorri Izendapenen babesari buruzkoak.



479/2008 (EE) Araudiak mahatsaren eta ardoaren merkatuaren antolakuntza (OCM) ezartzen du. Gainera, erregulazio berria ezartzen du

ardoaren izen geografikoei dagokienez: EJBEKA (Eskualde Jakin Batzuetan Ekoitzitako Kalitatezko Ardoak) izenekoak desagertu egiten dira eta **Babestutako Jatorri Izendapena (BJI) eta Babestutako Jatorri Argibidea (BJA) gehitu** dira. Hemendik aurrera aitortzea ez dute estatu kideek egingo, ezpada Batzordeak.

BBT

Kontseiluaren **509/2006 (EE) Araudia**, 2006ko martxoaren 20koa, **Nekazaritzako produktuen eta elikagaien Bermatutako Berezitasun Tradizionalei buruzkoa.**

Batzordearen **1216/2007 Araudia**, 2007ko urriaren 18koa, ezartzen dituena Kontseiluaren 509/2006 Araudiko, Nekazaritzako produktuen eta elikagaien Bermatutako Berezitasun Tradizionalei buruzkoa, **aplikazio-xedapenak.**

998/2002 Errege Dekretua, irailaren 27koa, ezartzen dituena nekazaritzako produktuen eta elikagaien ezaugarri zehatzak ziurtatzeari buruzko **araudi erkideen aplikazioaren barne-arauak.**